

EZAGUTZAREN GIZARTEA
LA SOCIÉTÉ DE LA CONNAISSANCE
LA SOCIEDAD DEL CONOCIMIENTO

II

BIHARKO UNIBERTSITATEA
L'UNIVERSITÉ DEMAIN
LA UNIVERSIDAD DE MAÑANA

Donostia, 2017-10-09

Baiona, 2017-10-13

Donostiako Foroa

Bergarako emaitzen harira (I)

- ▣ Ezagutzaren gaiaren sakontasuna (errealitatearen eraikuntza kontzientea eta partekatua —elkarrekin sortutakoa—).
- ▣ Gizarte guztiak izan dira «ezagutzaren gizarteak». Zerk bereizten du gurea?
- ▣ Balioak ere sartu behar dira hausnarketan? Ezagutzak eraldatzailea izan behar du (edo izan behar luke)? Zer gizarte-mota eraiki nahi da, eta nola?
- ▣ Nola sortzen da ezagutza?
 - Gaur egungo sisteman, unibertsitate-sistemak (largo sensu) funtsezko eginkizuna du (baina ez eksklusiboa!):
 - ▣ Prestakuntzak, beraien egitura, hasierako prestakuntza (vs. LLLa).
 - ▣ Ikerketa-bidea, haren funtzionamendua.
 - ▣ Ezagutzaren profesionalak eta beraien jarduna. «Burbuilan» aritzen dira?

- Azaldu diren galderak:
 - Zerk du balioa? (Zer balio?)
 - Zer da ikastea? Ikasten ikastea, sen kritikoa, sen ekintzailea, ikerketarako prestakuntza.
 - Zein da ikaskuntza partekatuen tokia (ekintzarekin eta ekintzarako...): esperientziarena, ekintzarena, baterako jardunarena (lankidetzarena), gizarte-eraldaketarena?
 - Zer eginkizun betetzen dute alderdi emozionalak, balioek, giza alderdiak?
 - Zein da iraganaren jaraunspenaren rola (tradizioa/berrikuntza)?
 - Zer egin behar da esku-hartzearen eremua zabaltzeko eta bazterkeria saihesteko?
 - Zein toki bete behar du arlo digitalak?
 - ...

EZAGUTZA

- Ezagutzaren definizio bakarra egin beharrez, hainbat definizio egitea nahiago izan da; gainera, «kontzientea» hitza gehituz gero, isileko ezagutza kanpoan uzten da.
- Ezagutza balio epistemikoa eta kognitiboa da.
- Gizartearen funtsezko baliabidea EZAGUTZA da, eta gaur egun balio ekonomikoa ere hartu du.
- Sortzen den balio-katean, unibertsitatea eragileetako bat baino ez da. Eragile horiek eta beraien arteko fluxuak identifikatu beharko lirateke.
- Nola banatzen da ezagutza? (Unibertsitatea)
- Ikasleek ezagutza bereganatzen dute, baina baita enpresek ere, patenteen bitartez.
- Funtsezkoa da irakaskuntzatik IKASKUNTZARA jotzea.
- Gaur egun, ezagutzak eta unibertsitateak interes ekonomikoen/industrialen alde egin dute.
- Helburua hartu behar da kontuan: balioekin eta balio horien erreferentziekin lotzea.
- Ñabardura bat gehitzea proposatu da: INFORMAZIOA eta EZAGUTZA bereiztea. Lehenengoa euskarri batean dagoen guztia izango litzateke, eta

bigarrena askoz ere konplexuagoa, gizakien prozesu kognitiboetan gertatzen den guztia, isileko ezagutza barne.

- Dena dela, etorkizunean kontuan hartu beharko dira teknologia «perbasiboak» (giza gorputzean txertatuta daudenak) eta adimen artifiziala, beharbada paradigma aldatzea eragingo baitute.
- Ez dago ezagutzaren gizarterik: ezagutzaren gizarte kapitalista da.

UNIBERTSITATEA

- Eginkizun bakarra informazioa banatzea badu, ez dirudi inbertsio ona denik etorkizunerako. Nork bere ezagutza sortzeko espazioak sortu beharko lituzke.
- Unibertsitateak «akademia» hutsak bihurtu dira: informazioa transmititzen dute, baina ez dute ezagutzarik sortzen.
- Gaur egungo unibertsitatea botere ekonomikoek eskatzen duten helburuetara dago bideratuta. Gainera, sistema hiper-arautua da, mundu globalizatuaren eskaerei erantzuten diena. Ezagutza erabat zatikatuta dago.
- Unibertsitateak benetako gizartea, jende xehea, ahanzteko arriskua dago.
- Sen kritikoa eta eraldatzailea landu beharko luke, pedagogia emozionalean (giza dimentsioan) oinarrituta.
- Unibertsitatea zabalkunde-tresna da, baina gizarte-teknologia ere hornitzen du (gizarteratzea). Adina, generoa... txertatzeko gizarte-teknologia ere bada LLLa (long life learniga).
- Balio-kateak dira? Edo hornidura-kateak? Unibertsitateetako hiperaktibitatea aitzakiarik onena da ez pentsatzeko eta dena datorren bezala onartzeko.
- Zientziaren eta teknologiaren paradigman murgilduta, badago oraindik ere pentsatzen duenik berrikuntza beti aurrerabidea dela, baina ez da egia. Unibertsitateak berrikuntza arduratsua eta errespetutsua sustatu beharko luke.
- Unibertsitate ideala ez dago EGIA BAKARRAREN (zientzia-labela duenaren) zerbitzuan; aitzitik, espiritua planteamendu berrietara zabaltzen du.
- Zer zientzia-ekoizpeni lagundu nahi zaio? Zientzia-aldizkarien negozioa (euren onurarako edo lehiakideen kalterako ikertzaileak «erosten» dituzten enpresak); Shanghaiko sailkapena...
- Berrikuntza-sistemak funtsezkoak dira, zalantzarik gabe, baina bitartekoak eta helburuak nahasten ditugu.
- GAFAk (Google, Amazon, Facebook eta Apple) dira XXI. mendeko inperioak, baita informazioari eta ezagutzari lotutako kontu guztietan ere. Gizarte-kontrolerako erabiltzen dute immigrazioa, bikaintasunerako bidean.
- Gaur egun, GOOGLE eta Whatsapp dira errealitatea benetan eraldatzen dutenak.

EGUNGO UNIBERTSITATEA; IKUSPEGIA ETA GABEZIAK

- Gizartearen isla, sistemaren mendeko.
- Ikuspegi negatiboa: akademia bihurtu diren unibertsitateak, unibertsitate zaharkituak eta endogamia masiboa dutenak. Irtenbidea: kopurua murriztea, eskematizatzea eta espezializatzea.
- Bokazioa/lanbidea dikotomia: unibertsitate modernoak lanbideak sortzen ditu, eta hutsik gelditzen dira «bokaziozko» prestakuntzak.
- Alabaina, «bokazioa» kontzeptu soziala da, unibertsitateko irakasleak ezagutzaren langileak dira eta.
- Irakasleak ez dira bokazioz irakasle, baliabide gisa erabiltzen dute lanbidea; beste jarrera bat eskatu beharko litzaieke, pertsonak prestatzen ari dira eta.
- Unibertsitateen etorkizuna «hodeian» dago, nahiz eta gaur egun nazioz gaindiko erakundeen mende egon.
- Jardunbide egokitzat eta eredutzat aipatu dute Mondragon Unibertsitatearen Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Masterra.
- Bolonia-programa zalantzan: kalitatea lehenesteko asmoz sortu zen; kredituetan oinarrituta dago, beste ezagutza batzuk ere txertatzeko...; baina, herrialde guztietan huts egin du, funtzionamendu «fosildua» duelako.
-

UNIBERTSITATEAREN HELBURUAK EDO EGINKIZUNAK (nolakoa izan behar luke?)

Ikaskuntza	Sen kritikoa garatzea	Inklusioa eta gizarte-komunikazioa	Benetako gizartean murgilduta dago
Ikerkuntza	Internazionalizazioa	Suspertzea (x gaiei buruzko gizarte-eztabaidarako eginkizuna)	Unibertsitate-bizitza sustatzen du
Prestakuntza	LLL ikuspegia	Elkartzeko eta trukatzeko espazioa	Balioak eta etika bultzatzen ditu
Ezagutza eraldatzea	Konpetentziak garatzea (talde-lana, ekimena, kudeaketa kulturantzuna)	Garapen-proiektu esplizitua eta esplizitatua	Endogamiaren amaiera da
Ideiak, bideak eta baliabideak hornitzea	Gai dena, independentea, askea eta autonomoa	Teknologia garatzeko poloa	Gizarte gizatiarrago eta erosoago baten laborategia
Adimen kolektiboa sortzea	Pentsatzeko gaitasuna ematen du (pentsamendu-eskola)	Komunitatearen garapena eraikitzeke lanean txertatutako erakundea	Etorkizunera begira
Informazioa eta ezagutza zabaltzea eta pentsaera kritikoa suspertzea	Pertsona autonomoak, arduratsuak eta konprometituak prestatzea	Enpresaren, teknologiaren, hezkuntzaren eta gizartearen arteko elkarrekintza	Kultura garatzeko esparrua
Ezagutza sortzailea, eraldatzailea eta ekintzailea ekoiztea	Ikerketa- eta irakaskuntza-unitatea (Humboldt)	Elkargunea	Berrikuntza eta garapen pertsonala, soziala eta teknikoa bideratzen du
Enplegarritasuna	Bitartekoz hornitua: bitarteko teknikoak, ekonomikoak eta giza bitartekoak		
Berrikuntza (eta autoberrikuntza)			
Ekintzailtza (orotarikoa, mintegiak, inpaktua)			
Diziplinartekotasuna			

ETA AMETSETAN HASITA...

- Norbanakoak bere burua gainerakoengandik bereizteko prozesu mugagabeen laguntzea. Unibertsitateak benetan autonomoak diren pertsonak sortu beharko lituzke.
- Partaidetza sustatuz trebatu beharko luke, proiektuetan oinarrituta, eta ikasleen autonomia soziala bultzatu.
- Eskuratutako esperientziaren balidazioa bultzatu beharko litzateke, baina eraginkortasunez, benetan.
- Unibertsitatearen esparru estatikotik irten beharko litzateke; badaude ikasteko eta kalitate handiko ezagutza eskuratzeko beste bide batzuk, «aintzatespen» ofizialik izan gabe, baina enplegarritasun handiarekin.
- Unibertsitatea edo antzeko bide bat garapen globalerako eta elkarrekintza sozialerako polo bihurtzea, eraldaketa helburu.
- Ikerketari dagokionez, tokian tokiko lehentasunak –mainstream– ezarri beharko lirateke eta parte hatzeko ikerketak, diziplina eta kultura anitzekoak, bultzatu.
- Interesgarria izan liteke «unibertsitate kooperatiben» kontzeptua, gizarte dinamiko honetan finantzaketa erakar baitezakete. (??)
- Badirudi sistema kaleidoskopikoago batera ari garela abiatzen, onerako eta txarrerako horren araututa egongo ez den batera. Mundu oso bat irekitzen du horrek esperimentazioaren esparruan.

UNIBERTSITATEAREN ETORKIZUNA ETA ETORKIZUNeko UNIBERTSITATEA

Unibertsitate modularra: anarkia antolatua

- Gaur egungo unibertsitatea ez da malgua eta ez da gizartearen beharrietara egokitzen. Prestakuntza-ibilbideak zurruneziak dira, diziplinen arabera antolatuak eta zorrotzeziak. Antolamolde horrek ez du diziplina-aniztasuna eta diziplinaz gaindikotasuna bultzatzen.
- Unibertsitate modularrak, berriz, moduluen bidez antolatzen du ezagutza barnertzeko prozesua. Modulu espezializatuak (kalitatea, bikaintasuna) dira, ikaskuntza-arlo bakoitzean ezagutzak duen aldakuntzaren arabera eguneratzen direnak.
- Unibertsitate modularren ezaugarri batzuk:
 - Ikaste-esperientzia anitzagoa eta zabalagoa eskaintzen du, eta ikasleak berak aukeratzen du. Hau da, ikasleak berak antolatzen du ezagutza, bere interesen eta beharrietan arabera.
 - Diziplina-aniztasuneko ikuspegia eta ezagutzen hibridazioa sustatzen du, ezagutza-arlo batzuei lotutako moduluak elkarren artean ehunduz.
 - Arazo zehatz eta espezifikoei irtenbidea bilatzeko helburua duten ezagutza heterogeneoak denbora mugatuan egituratzeko aukera ematen du.
 - Proiektuen araberrako prestakuntza sustatzen du, eta, proiektu horietan, ikasleen beharrietan eta prestakuntza- eta ikerketa-proiektuaren eskakizunen arabera artikulatzen dira moduluak.
 - Sormen-baliabideak eta funtsezko konpetentziak (ikasten ikastea, ekintzailtza eta abar) mugiarazten ditu, prestakuntza modularra jasotzeko.
 - Teknologia berrien (digitalen) erabilera sustatzen du, ikasle bakoitzak aukeratutako ibilbidearen (ikaskuntza-bidearen) zerbitzura integratuta. Hartara, erakundearen esparru guztietan uzten da ikaskuntzaren azterna digitala.
 - Erakundea berregituratu egiten du, baina ez tituluen arabera, ezagutza-arloen arabera baizik. Horrela, burututako proiektuaren arabera, espezializazio-aipamen zehatza egiten du.
 - Irakaskuntza eta ikerketa moduluen arabera birdefinitzen ditu, jakinik moduluak berritu egin behar direla maiztasun jakin batekin (lau urtean behin, gehienez).
 - Irakaslearen eginkizuna aldatu egiten du: balio etiko eta profesionaletan oinarritutako ezagutza ekoizteko ibilbide pertsonal bateko bidaide bihurtzen da.

- Unibertsitateko ebaluazio-sistema eraldatzen du, irakaskuntza- eta ikerketa-moduluetara egokitzeko.

Unibertsitate irekia: bizitza osoko heziketa

- Unibertsitate irekia prestakuntza-moduluei lotuta dago, eta modulu horiek, beren aldetik, etengabeko prestakuntzara, adin guztietara eta gizarte-eragile bakoitzaren beharretara egokitzen dira. Ezaugarri batzuk:
- Bizitza osoko ikaskuntza sustatzen dute, ikasleek/ikertzaileek eta jarduleek garatutako modulu mistoetan oinarrituta. Dimentsio misto horri esker, lurraldeko arazoei lotutako erronken bidez eguneratzen da ezagutza, eta, ondorioz, eguneroko arazoei isla zuzena dute unibertsitatean.
- Labak, fablabak, living labak, mintegiak eta ideien eta proiektuen prototipoak lantzeko bestelako azpiegiturak jorratzen ditu, dimentsio esperimentalean eta tokiko benetako arazoen irtenbideetan oinarrituz, ikaskuntza-espazio moduan erabiltzeko.
- Egiten jakitea eta gizartearen alorretan sortutako ezagutza ez-akademikoak balioetsiko dituzten prestakuntzako eta ikerketako espazioak garatzen ditu.
- Unibertsitatean sartzeko sistema bidezkoagoa ezartzen du, gizartearen ikuspegitik orekatuagoa, gizartean gora egiteko bidetzat duen eginkizuna eguneratuz.

Unibertsitate erlazionala: globala tokian-tokian kokatzea

- Unibertsitate erlazionalak enpresa-unibertsitatea gainditzen du (horren alderdi bakarra interesatzen zaigu guri: unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana, teknologia-transferentzia dakarrelako, pin-offa sortzen duelako eta enpresekiko lotura finkatzen duelako). Unibertsitate erlazionala gizarte-maila guztiekin lotzen da.
- Unibertsitate erlazionalaren ezaugarri batzuk:
- Erakundearen gobernantza-eredu berria, gizartearentzat gardenagoa, egituratzen du. Erabaki estrategikoak hartzeko eskema berri bat eskatzen du, lurraldeko eragileak ere aintzat hartzen dituen. Partaidetzako aurrekontua.
- Eginkizun akademikoaren ebaluazio-sistema aldatzen du. Ebaluazio erlazionalak bikoitien arteko –bikaintasuna– nahiz bakoitien bidezko –gizarte-egokitasuna– ebaluazioa dakar, bai eta gizarte-erantzukizunean oinarritutako ikerketa ere.
- Lurraldeari lotuago egongo den ikerketa-sistema bultzatzen du eta, aldi berean, ezagutza globalaren (kosmopolitaren) eta tokiko ezagutzaren

(nortasunari lotutakoaren) arteko harremana kudeatu, gizarterako eta lurralderako berrikuntza egokiak sortzeko.

- Azpiegiturak garatzea dakar: gizarte-ekintzailetzarako, ekintzailletza teknologikorako eta ekintzailletza instituzionalerako –sektore publikoa–.

Euskarazko taldearen ekarpenak:

Oharra: «unibertsitate» hitza zentzurik zabalenean hartu dugu (unibertsitateak eurak, ingeniaritza-eskolak, merkataritza-eskolak, ikerketa-erakundeak...).

1. Bizi garen garaian, unibertsitatearen lehentasuna alderdi kuantitatiboa da: gero eta garrantzitsuagoa izatea, gero eta handiagoa, gero eta jendetsuagoa... Beti gero eta...! Sakonean dagoen galdera beste bat da, ordea: gero eta gehiago zer?, gero eta gutxiago zer?
2. Gaur egungo ezagutzaren gizarteak «unibertsitateak unibertsitatea hiltzea» dakar, masifikazioaren ondorioz. Ezagutza unibertsitatetik gizartera irtengo da, baldin eta diplomak unibertsitatetik kanpo ezagutza sortzen badute. Unibertsitateek babes gisara asmatu dute diploma; baina, funtzionatzeko era kontserbatzailea eta erreakzionarioa da hori. Testuinguru erreakzionario horretan, unibertsitatea ezin da onartu.
3. Ezin da ontzat hartu diplomak ematera mugatzen den unibertsitatea. Unibertsitatea gizartearen emaitza da (gainerako erakundeak diren bezalaxe), ala gainetik badago zerbait, txandakatze politikoez harago bidea erakuts lezakeena? Unibertsitateak independente jarduten du (edo, sikiera, askatasun-maila asko ditu)?
4. Frantziako sistema oso ondo ikusia dago nazioartean. Frantzian, 30 milioi biztanle aktibo daude; 3 milioi tarteko arduradunak dira eta 300.000 goi-mailako arduradunak. Horren fluxuari erreparatuta, bitarteko 150.000 arduradun eta goi-mailako 30.000 arduradun behar izaten dira urtean. Unibertsitateak 200.000 ingeniari eta MBA eta 200.000 masterdun sortzen ditu urtean. Inork ez du sistema zuzentzen.
5. Unibertsitatearen masifikazioa modan dago (langabeziaren aurkako *konponbidea* omen). Izan ere, enpresaburuek zailtasun handiak dituzte beren premiak zehazteko.
6. Prestakuntzaren alorreko eragileek osotasuna eta arauetatik ihes egiteko bitartekoak bilatzen dituzte. Profesionalak («lanpostuak»), jarduera pedagogikoak,

ikerketa-kontratuak eta abar finantzatzeko baliabideak bilatzen dituzte. Gizartearen ikuspuntutik, enpresek botere handia dute.

7. Prestakuntzaren gaia ez da soilik unibertsitatearen kontua, gizarte osoarena baizik. Eragile guztiek, eta batez ere eskualde-mailakoek, hartu behar dituzte ardurak, eta finantzaketa aurkitu. Ez da sistema egonkorra. LLLa (Life-long Learning edo bizitza osoko ikaskuntza) funtsezkoa da. Gauzak berriro asmatu behar ditugu, profesionalen munduarekin elkarlanean.
8. Mundu-mailako lehiaz ari garenean, ez al gaude Euskal Herriko unibertsitateetan agertzen diren benetako kontuetatik hurbilago? Galdera lurraldean egin behar dugu, eta horrek gizarte osoa inplikarazten du. Nahi dugun unibertsitate-ereduari buruzko galdera dator: egia da malguak izan behar dugula, baina horrek ez du esan gura masifikatu egin behar denik. Unibertsitate-osteko laneratzearen gaia ere agertzen da: prestatzen ari diren langabeak aparkatzeko gunea da unibertsitatea? Gainerako alorren (batez ere lanbide-heziketaren) kontua ere mahairatu da: haren irteeren eta gizarte-erakargarritasunaren kontua. Berriro ere LLLaren gaia, eta ibilbide bereziak imajinatzeak aukera, lan-munduan eta lanbide-heziketan ere sartu-irtenak eginez.
9. 2018an, 50. urteurrena beteko du 68ko maiatzak: gizartearen kritikak, unibertsitatearen kritikak... Gaur egun badaude ezagutzan aritzen diren beste eremu asko: familia (kultura, hizkuntza...), enpresa, elkartegintza, sindikatuak, hedabideak... Guitryk bere buruari galdetu zion: «zertarako ikasiko dut beste batzuek dagoeneko ezagun dutena?»: prestakuntzak ezagutzaren garapenaren esparru txiki batean baino ez du esku hartzen. Prestakuntza-era horien guztien arteko pasabideak asmatu behar ditugu, lan-munduaren eta unibertsitatearen arteko fluxuetan oinarritutako ibilbide bereziak. Hasierako prestakuntza, prestakuntzari lotuta gaur egun unibertsitateak duen kezka-iturri bakarra, LLLaren testuinguruan kokatu behar da. Pertsonak (ikasleek) geroago eskuratu beharko lukete doktoregoa, gizarte-esperientzia bizi izan ondoren. Zer gizarte-esperientzia dugu 25 urterekin? Hori guztia antolatu egin behar da.
10. Ikuspegi kritiko horrekin jarraitzeko, unibertsitateak iraganeko lanbideetarako prestatzen du funtsean (hau da, beti berandu egokitzen da). Eta, era berean, eliteak prestatzen ditu (biztanleriaren % 10). Gure unibertsitatea funtsean kontserbatzailea da, garrantzitsua da askotariko finantzaketak aurkitzea, harago joateko («tokikotik harago joateko»).
11. Gizarteak, oro har, eragin handia izan behar du unibertsitateko bizimoduan. CAFeko lehendakariak, berrikitan, bere enpresak behar zituen pertsona-motei, balio-motei eta kompetentzia-motei buruz hausnartu zuen: horrexetarako prestatu behar du unibertsitateak! Haren esanetan, enpresa bera arduratuko da prestakuntza teknikoaz.

12. ESTIA masterren (master profesional aplikatuen) esperientzia azpimarragarria da, batez ere, goi-mailako hezkuntzaren eta enpresen artean sortutako loturak direla eta; eta batik bat (baina ez bakarrik) lurralde horretako ETE-ekin lortutako loturak direla eta. Kontaktu horietatik era guztietako harremanak sortzen dira ESTIAren eta aipaturiko enpresen artean. Ikerketa-kontratuak sortzen dira, epe laburreko prestakuntzak abian jarri... edota, kontrara, gerta daiteke enpresa batekin jorratutako elkarlanaren ondorioz langileetako batzuk masterretan matrikulatzea. Unibertsitatea bere lurraldearen zerbitzura jartzeko modu interesgarria da. Agerikoa denez, unibertsitateak ez du % 100ean eredu horren arabera jardun behar; baina, noranzko horretarantz jo behar du, argi eta garbi, batez ere aldirietan dauden lurraldeetan (hala nola Euskal Herrian).
13. Unibertsitatearen baitan (eta kanpoan ere), badira mugimenduak, ez ezinbestean ofizialak, noranzko horretarantz jo nahi dutenak (horren adibide dira «Projectique mugimendua», «Ateliers des jours à venir» direlakoak, MCX...). Dena den, oso erresistentzia indartsuak daude. Eta eraitsi egin behar dira. Ziurrenik erakundearen ertzetan, kanpoaldetik, lortuko da «subertsio» hori garatzea.
14. Adituek elkarlanean aritzeko espazio irekia izan behar du unibertsitateak. Beraien artean aditzea komenigarria da, baina ezinbestekoa da, ordea, gizartera zabaltzea. Egoera horretan, eta, azken buruan, gizarteak berak eskatu behar du. Zentzu horretan, unibertsitateak gardenagoa eta malguagoa izan behar du. Tamainamugak izan behar ditu (unibertsitate erraldoiei ezetz esan behar zaie), eta deszentralizatu samarra izan behar du, tokiko beharrezan ere erantzuteko. Gehiegi eskatzen diogu? Erantzun ezin dion zerbait eskatzen diogu? Edonola ere, gizartera hurbildu behar du. Testuinguru horretan, lehentasunezko gaia da jakitea nola gobernatu behar den unibertsitatea, noranzko horretan gara dadin.
15. Mundu guztiak sortu eta kontsumitzen du ezagutza. Horregatik, sarean antolatutako ezagutza hartu behar dugu aintzat, ezagutzak ezin baitu iturri bakarra eduki. Esperientziari dagokionez, Niels Bohr-en arabera, aurretiaz porrot guztiak ezagutu dituenak daki. Hortaz, unibertsitateak porrotetatik abiatuta ere egin behar du lan.
16. Unibertsitateak egungo gizarte-erronka guztiei lotuta egon behar du, errealitatetik at ibili beharrean. Post-produktibismoaren erronka sistemiko horiek aintzat hartuta, unibertsitateak alderdi ez-kuantitatiboarekiko interesa adierazi behar du: oraina eta etorkizuna ez dira zifren gainean soilik eraikitzen. Horrek beste gai batzuk ere azaleratzen ditu: gaur egungo eta etorkizuneko gizarte-nahiak eta -beharrak identifikatzeko premia; eta irtenbideak elkarren artean identifikatu eta eraikitzeko behar den eztabaida demokratikoaren premia. Nola joan «tokikotik» harago, nola partekatu sortutako ezagutza? Nola transmititu? Nola baloratu jardunean sortzen den ezagutza? Zer eginkizun bete behar du unibertsitateak prozesu horretan? Nola antolatu hori guztia? Zer gobernantza behar dugu?

17. Nola ezagutu enpresen, elkarteen, gizartearen... beharrak? Eta nola erantzun? Prestakuntza integrala garatuz, balioei zati handia eskainiz. Partaidetza-bideak garatu behar dira. Ikasleek beren moldakortasuna, enplegarritasuna eta, beraz, alderdi horiei lotutako konpetentzia guztiak garatu behar dituzte. Ideia berriak mamitu behar dira; baina, ondoren, beharrezkoa da, halaber, kanporatzen jakitea.
18. Ondorioz, ikasle baten ikuspuntutik, unibertsitatea aurkikuntza- eta zabalkuntza-garaia da gazteentzat. Bertan eskuratutako konpetentziek enplegarritasuna areagotu behar dute, lanpostua bilatzeko eta lanposturako prestatzeko egokitzapena sustatu behar dute. Ezinbestekoa da enpresekiko lotura sendoa finkatzea. gainera, enpresetan (edo beste erakunde batzuetan) egindako praktikaldiek esperientzia sortzen dute. Beste alde batetik, oso garrantzitsua da gazteengan jorratu nahi ditugun balioei buruz hausnartzea.
19. Laburbilduta, Euskal Herriko unibertsitatearen Estatu Orokorren ideia jorratu da. Bizpahiru urtean behin egiteko kontua izango litzateke.